

URBINA EZA

— ARABA / ÁLAVA —

Urbina Eza Arabako hiriburutik 23 km-ra dago, Badaia mendilerroak Baia ibaiaren ertzetarantz jaisten denean eratzen duen maila gogorraren oinetan. Mendi-magal malkar horrek hesi bat egiten du Kuartango eta Mendebaldeko Lautadaren artean, eta gainditzeko, Lautadako isurialdeetatik mendilerroaren goialdean dauden Otogoien eta Otobaren era igotzen diren bide zaharretatik jo behar da, gero, handik, Kuartangoko haranera jaisteko.

Bide horietan dauden hainbat tumulu eta trikuharrik argi erakusten digute inguru honetan oso arin finkatu zirela herrixkak. Urbina Eza kokaleku paregabea dago, 607 m-ko altituden, eta handik begien aurrean azaltzen da Zuhatsu udalerriko hiriburua, haran zati handia eta Baia ibaiaren ibilgua.

Herrixka txiki hau ez da inoiz nabarmendu: ez da aberatsa izan, ezta oso populatua ere. Baliabide falta hori nabariagoa izan zen Erdi Arotik aurrera. Herria aipatuta azaltzen da Kalagorriko Jerónimo Aznar gotzainak 1257an idatzitako gutunean ageri den zerrendan, Zuhatsu, Tortura eta Aprikanorekin batera Kalagorri Kabildoari hamarren laurdenak ordaintzen zizkieten artean. Orduan, Urbina Ezako eliza erromanikoa Zuhatsu eta Torturakoa baino pobreagoa zen, eta, ziur aski, Aprikanokoa baino eskasagoa ere bai. Martín Gil lizentziatuak benefizio osoko bi onuradun erregistratu zituen hango parrokiari 1556an egindako bisitan, eta San Migelen omenez basiliza bat zegoela zehaztu zuen (ez du gaur egunera arte iraun).

Urbina Eza se sitúa a 23 km de la capital alavesa, al pie del brusco escalón que forma la Sierra Brava de Badaia en su declive hacia las riberas del río Baias. Esta abrupta ladera forma una barrera entre Kuartango y la Llanada Occidental, que se salva, no obstante, por los caminos viejos que desde las vertientes de la Llanada subían por los Huetos hasta lo alto de la sierra, para descender, a continuación, al Valle de Kuartango.

Varios túmulos y dólmenes situados en estas rutas confirman el temprano poblamiento del lugar. El privilegiado asentamiento de Urbina Eza, a 607 m de altitud, hace que desde aquí se domine visualmente la capital del municipio, Zuhatsu, y también una amplia extensión del Valle y del río Baias.

Esta pequeña aldea nunca destacó por su riqueza ni por su población. Tal escasez de recursos parece acusarse ya desde el medioevo. En la relación formulada por la carta del obispo calagurritano Jerónimo Aznar, en 1257, aparece la localidad por su aportación de los cuartos decimales al Cabildo de Calahorra, junto a Zuazo, Tortura y Aprikano. En estos momentos su iglesia románica era más pobre que las de Zuazo y Tortura, y probablemente inferior a la de Aprikano. El licenciado Martín Gil registraba, en su visita de 1556, dos beneficiados enteros al servicio de su parroquia y la existencia de una ermita dedicada a San Miguel, actualmente desaparecida.

San Joan Ebanjelaria eliza / Iglesia de San Juan Evangelista

HERRI TXIKI HONETAKO etxeak eliza-parrokiaren inguruan daude altxatuta. Tenplua San Joan Ebanjelariaren omenez dago altxatuta, eta oraindik ere baditu ziur aski XIII. mendean eraiki zuten antzinako eliza erromanikoaren arrasto batzuk. Lehen aipatu bezala, baliabide eskasak izanik, tenpluan elizkizunetarako ezinbestekoa zena baino ez zuten gorde. Gerora, XIX. mendearen amaieran, Erdi Aroko tenplua eraikitzen hasi ziren, baina ordurako nahiko hondatuta zegoen.

EL CASERÍO de este pequeño pueblo se halla concentrado en torno a la iglesia parroquial. El templo tiene por advocación a San Juan Evangelista y conserva algunos restos de la primitiva iglesia románica, probablemente del siglo XIII. La mencionada escasez de recursos hizo que esta iglesia se mantuviera únicamente con lo preciso e imprescindible para su culto. Sólo a finales del siglo XIX pudo emprenderse la restauración de su templo medieval, que entonces acusaba un gran deterioro.



Portada

Portada

Oinplano angeluzuzena du, eta kanpotik argi ikusten denez, zenbait zati ditu erantsita. Tenpluaren hegoko sai-hetsean erantsita, esaterako, elizatea dauka, XIX. mendearen amaierakoa, eta haren babesean dago Erdi Aroko portada sinplea. Portadak arku zorrotza du, ertz bizian ebakitako lau arkibolta lisoz eraturik; deskarga-arku bat ere badu, apaindurarik gabekoa. Arkua inposta lisoen gainera eta arki-bolten antzera ertz bizian ebakita dauden zangoen gainera dator. Aipatu dugun elizatearen estalkiak altuera gutxiago duenez, ez da portadaren goialdea ikusten. Kanpandorrea modernoa da, eta tenpluaren oineko horman dago altxatuta. Horretara, apurtu egiten du, nolabait, haraneko eliza gehienetan ageri diren kanpandorreen estiloa.

Tenpluaren ekialdera, eliza zaharraren burualdean eraikitako sakristiaren kanpoko horman, bao baten arras-toak ikusten dira. Erdi-puntuako arku bat da, baketoi eta deskarga-arku lisokoa. Garai batean alboetan zituen zuta-beetatik, atzapar itxurako bi harroin baino ez dira gertzen. Horietako batek arku-apaindurak ditu.

Tenpluaren hormak harlangaitzezkoak dira, eta, barritik, Erdi Aroko eraikinaren antolamendua gorde du:

De planta rectangular, se observan desde el exterior varios cuerpos anexos. Así, adosado al costado sur del templo se abre el pórtico, de finales del XIX, que cubija la sencilla portada medieval. La portada consta de arco apuntado formado por cuatro archivolts lisas, cortadas en arista viva, y sobrearco también sin decorar. Se apea el arco en impostas lisas y en jambas que, como las archivolts, se cortan en arista viva. Por ser de menor altura, la actual cubierta del mencionado pórtico impide la visión de la parte superior de la portada. La espadaña, de ejecución moderna, se levanta en el muro del pie del templo, rompiendo, en gran medida, el estilo de los campanarios que se ofrecen en la inmensa mayoría de las iglesias del valle.

Al este del templo, en el muro exterior de la sacristía construida en la cabecera de la primitiva iglesia, se aprecian los restos de un vano. Se trata de un arco de medio punto con baquetón y sobrearco liso. De las columnas que lo flanqueaban únicamente quedan dos basas de garras, una de ellas con decoración de arcos.

La fábrica del templo, de mampostería, conserva en su interior la disposición del edificio medieval: cabecera



Burualdeko leiho itsutua

Ventana cegada de la cabecera

burualde zuzena eta bi zatiko nabea, erdi-puntuko par-pain-arkuekin. Dokumentuetan azaltzen denez, 1707. urtean Erdi Aroko gangak "hondatuta" zeuden; beraz, gaur egungoak modernoak dira, aipatu bezala, XIX. mendearen amaierako konponketan berritutakoak. Gauza bera gertatzen da arkuei eusten dieten kapitel molduratuak dituzten pilastrekin eta hormen barrualdetik doan inpostarekin ere.

Bataiarria ontzi lisokoa da, eta zerrenda lau eta sinplea du hegalean. Erdi Aroko pilare baten gainean ezarrita dago, eta pilare horrek lau baketoi ditu erantsita lau angeluko nukleoan.

recta y nave de dos tramos, con arcos fajones de medio punto. Según consta documentalmente, en el año 1707 las bóvedas medievales se encontraban "en notoria ruina" por lo que las que hoy contemplamos son modernas y corresponden a la mencionada restauración de finales del XIX, lo mismo que las pilastras con capiteles moldurados en las que se apean los arcos, y la imposta que corre por el interior de los muros.

La pila bautismal, de copa lisa con simple banda plana en el borde, se apoya en un pilar medieval, con cuatro baquetones adosados a un núcleo cuadrangular.

Testua eta argazkiak: MPGHI

Texto y fotos: MPGHI

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 133; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 315-316; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, p. 838.